


EAEko BPG %2,8 hazi zen laugarren hiruhilekoan

EAEko BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu berri duen aurrerapenaren arabera, **EAEko ekonomia %2,8 hazi zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean**. Horrela, Euskadiko BPG %4,3 hazi zen urte osoan. Hala ere, iazko bigarren hiruhilekoan hasi zen moteltzeko joera berretsi da.

Esportazioak %20,3 handitu ziren azaroan

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioa

Urtarriletik azarora bitartean. Milioi euro




Iturria: Eustat.

EAEko esportazioak %20,3 gehitu ziren azaroan aurreko urteko hileko berarekin alderatuta, eta produktu energetikoetan (%85,8) zein ez-energetikoetan (%17,0) gauzatu ziren gorakadak. Datu absolutuetan, urteko metatua 30.000 milioi eurotik gorakoa da, serie historikoa-ren maximoa baita.



Industriako negozio zifra %23,6 gehitu zen

Negozio zifra industrian
Urte bakoitzeko azaroa. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken datuen arabera, **EAEko industriako negozio zifra %23,6 handitu zen 2021eko azaroarekin alderatuta**. Alderaketa indizeak lortutako mailetan egiten bada, aurten erregistratutako balioa serie historiko osoko handiena da.

Langabezia tasa %8,4ra igo zen laugarren hiruhilekoan

Euskadiko langabezia tasa
Ehuneko



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **iazko azken hiruhilekoan langabezia tasa %8,4 izan zen, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gehiago**. Hori horrela izanda, urte osoko beheranzko joera eten egin da, eta handitu dira bai gizonen tasa (%7,4tik %7,8ra igo da), bai emakumeen tasa (%9,1etik %8,3ra).